

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 80/2020 Erabakia, otsailaren 18koa. Onespena ematea Belén González Benito andreak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendari postua uzteari, hark hala eskatuta, egindako zerbitzuak eskertuz

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 2ko 523/2019 Erabakiaren bidez, Belén González Benito andrea izendatu zen Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendari lanpostuan.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzako gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailetako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Ikusi da Belén González Bentio andreak aurkeztutako ukoa; beraz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Belén González Benito andrea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendari kargutik kentzea, berak hala eskatuta, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2020ko otsailaren 19tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 18a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta

Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR